

XXVIII. Topaketak

“Eskola digitalizaziorantz”



Donostiako Irakasle Eskola
2010eko maiatzaren 27an

AURKIBIDEA

1. SARRERA
2. METODOLOGIA
3. XXVIII. TOPAKETETAKO LANA
4. PROPOSAMENAK
5. ERANSKINA: Prentsa oharra

1. SARRERA

SAREAN Elkarteak maiatzaren 27an bere XXVIII. Topaketak burutu ditu Donostiako Irakasle Eskolan "Eskola digitalizaziorantz" izenburupean.

Eskola Publikoarekin erlazionatutako 110 pertsona bildu ginen gaia aztertzeko eta proposamenak egiteko.

Teknologia Berriak behin baino gehiagotan izan dira aztergai SAREAN Elkartearen Topaketetan, beraz, esan dezakegu hau ez dela gai berria gure ikastetxeetan, are gehiago, orain arte eman diren urratsek ahalbidetu dute beste erronka batzuei buruz hitz egitea.

Ikasturte honetan Hezkuntza Sailak "Eskola 2.0" Programa ezarri du ikastetxe guztietan eta horrekin batera zalantza beteriko eremua zabaldu da eskoletan. 5. mailako ikasleak aukeratuak izan dira esperientziarekin hasteko eta ikastetxeetako gela hauek hainbat materialez hornitu dira:

- Arbel digitala
- Ikasle bakoitzeko ordenagailu txikia
- WI-FI konexioa

Bestalde, gela hauetako tutoreak, ingeles arloko irakasleak, PTak eta IKT arduradunak formakuntza berezia egiteko beharrea aurkitu dira.

Honez gainera, antzinatek eskatzen ari garen kudeaketarako aplikazio orokorra prestatzen ari omen dira. Prozesu batzuk dagoeneko martxan daude (matrikulak, ez etorreren parte, etab.) eta eman diguten informazioaren arabera, 2012rako ikastetxeko kudeaketa osoa sistema horren bidez burutuko da.

Hori dela eta, iruditu zitzaigun une hau (maiatza) egokia izan zitekeela gaiaren inguruan hausnarketa egiteko eta arrazoi horregatik XXVIII. Topaketa hauetan berriro Teknologia Berrien atala jarri dugu aztergai.

2. METODOLOGIA

Txosten honetan azaltzen diren ideia eta proposamen nagusiak maiatzaren 27an egindako lanketan jaso ziren arren, ikastetxeek beti daukate erabilgai posta@sarean.net helbidea iradokizunak egiteko.

Gaia aztertzeko modua:

1. Topaketetan partaideak hiru lan-taldetan banatuta sailkatu ziren. Sarreran banatutako dokumentazioan jardunaldiaren antolaketa zegoen:
 - Gaiaren inguruan zenbait artukulu
 - Hausnarketa errezteko eta iradokizunak jasotzeko ondoko puntuak izan dituen gidoia erabili dugu:
 1. Eskola 2.0 kudeatzeko konplexutasuna
 2. Formazioaren inguruko gogoeta
 3. Tresneria eta konexioaren inguruko gogoeta
 - Ebaluazio orria

2. Talde nagusia partaide guztiekin osatzen da eta talde desberdinetan jasotako iradokizun eta proposamenak bildu eta gero SAREANen WEB orrian jarriko dira.
Proposamen horiek izango dira SAREAN Elkarteak bai Administrazio aurrean baita edozein forotan XXVIII. Topaketen ondorio bezala aurkeztuko dituenak.

3. XXVIII. TOPAKETETAKO LANA

3.1 - ESKOLA 2.0 KUDEATZEKO KONPLEXUTASUNA

Sarreran esan bezala, ikastetxeetan antzinatik lantzen ari da Teknologia Berrien arloa, azken urteetan aurrerapen dexente egin da eskola guztietan gaiaren inguruko proiektuak garatzen ari dira, baina bakoitzak bere maila du eta hori kontuan hartu behar da aurrera egiteko.

Topaketetako partaidek Hezkuntza Sailaren arduradunei Eskola 2.0 programaren ezarpenaren inguruan honako akatsak egotzi dizkiegu:

- Ez da ikastetxeekin ezertarako kontatu
- Inprobisazio handia igarri da
- Ikasturteko antolakuntza egin eta gero formakuntza berezia egiteko beharra
- Ez da informazio argia eman: ordenagailuekin zer egin, Wi-Fia...
- Beste behin ikastetxeetako Zuzendaritzaren ganean geratu da zamarik handiena
- Gaia puntako esperientzia bezala gizarteratu da baina gero arazoak ikastetxeetan geratzen dira: arduradunen falta, konexio kazkarrak, ordenagailuak apurtzen badira ikastetxeak ordaindu beharra...

Gauzak honela, eskoletan zalantza eta ardura ugari dago, egoera ekonomiko berezia gauden momentuan dirutza inbertitu da programa honetan eta salaketak egitetik aparte uste dugu etekina atera behar zaiola. Hori dela eta XXVIII. Topaketetan ondoko hausnarketa egin dugu.

3.1.1 - Arduraduna

Orain arte Teknologia Berrien arloan arduradun desberdinak egon dira, Premia Planarena, IKT arduraduna, eskola bakoitzean trebezia zeukana...

Argi daukagu arlo honek arduradun berezia behar duela eskola guztietan eta bada garaia eremu hori zehazteko, funtzioak argi uzteko eta arlo pedagogikoari lehentasuna emateko.

3.1.2 - Arlo Pedagogikoa

Eskola 2.0 programa eskoletan ezartzearekin batera metodologia aldaketei buruz hitz egiten da foro guztietan. Behin eta berriro aipatzen da benetan garrantzitsuena ez dela datuak buruan edukitzea baizik eta datuak aurkitzeko, aukeratzeko eta interpretatzeko heldutasunaren jabe izatea. Jardunaldi hauetan bildutako guztiak honekin ados egonda, azpimarratu da

hori ez dela bapatean lortzen, prozesu bat eman behar da horra heltzeko eta eskoletan norabide horretan abiatuta bagaude eta jarraitzeko gogoaz argi azaltzen den arren, oztopo batzuk agertzen dira.

Ondoko beharrak ikusten dira:

- Arlo honen antolakuntzak ordu kredituak behar ditu
- Formaluntza orokorra irakasle guztientzat eta berezia arduradunarentzat
- Esperientzia desberdinak ezagutzea eta konpartitzea
- Pedagogia inguruko gogoeta egiteko aukerak izatea: tresneriari emango zaion erabilpena, noiz, non, nola eta zertarako erabiliko dugun baliabide indartsu hori.
- Berritzeguneetako aholkularien laguntza

3.1.3 - Materialak

Garrantzitsua da kalitatezko materialak euskaraz edukitzea, bestela baliabide honek ez du onurarik ekarriko hizkuntzaren normalkuntza arloan.

Une honetan mota honetako baliabideak eskasak dira.

3.1.4 - Ikastetxeko plangintza

Ikastetxeak hainbat proiektutan murgilduta daude, batzuk bertan aukeratuak eta beste batzuk derrigorrez ezarriak. Hezkuntza foroetan sarritan aipatzen da egoera honek sortarazten duen stress punttua, kasu batzuetan nekea nabaria da eta gehienetan lan guztietara nahi bezala heltzeko ezintasuna aitortzen da.

Argi daukagu ere, eskolak gizartearekin batera joan behar duela eta haren eskakizunei erantzuna eman nahi diegula baina beti ez gara heltzen Administrazioak gure gainean jartzen duen erantzukizunaren neurriko baliabideak ez dituelako jartzen.

Eskola 2.0 rekin beste ahalegina eskatzen zaigu eta ikastetxeko plangintza egokitu behar da. Esparru desberdinetara hedatzen da egokitzapen hau eta une honetan ondoko zailtasunak aurrikusten dira:

a) Irakasleen kokapena

- Formazioa jaso dutenek egon behar dute zikloan eta askotan ez da posible izango ordezkioak izan direlako.
- Tutoretzak aukeratzeko eskoletan dauden akordioak apurtzeko beharra.

b) Ordutegiak

- Koordinatzeko eta beste proiektuekin uztartzeko antolakuntza berezia behar da.

- Ordutegietan malgutasuna lortzeko zailtasunak.
- Formatu behar diren irakasleen ordutegiak egokitzeke denbora.

c) Formazioa

Eskola 2.0ekin metodologia aldatu beharrean aurkitzen garela aipatzen da baina hau ez da beste barik gertatzen, ez da nahikoa esatea irakaslearen papera aldatu behar dela, aldatze prozesua ahalbidetu behar da. Gure ustez, irakasleen kontzientziazioetik hasi eta formazio programa zabalarekin bideratu behar da. Hutsunea batez ere arlo pedagogikoan ikusten da.

Era berean, esperientzien ezagutza zabaldu behar da, urrats berriak emateko oso lagungarriak baitira.

Ikastetxeetan talde-lana bultzatu behar dela esaten da jasotzen ditugun gomendio guztietan eta guk hala uste dugu baina, plantiletan gertatzen diren murrizketekin gero eta zailagoa bihurtzen ari da.

Ikastetxeetan metodologiaz eztabaidatzea ezinbestekoa ikusten da eta noski, hausnarketaren ondoren erabakiak hartu behar dira. Hemen Berritzeguneez eta Ikuskaritzak zeregin garrantzitsua izan dezakete.

d) Eskola 2.0 eta irakaskuntza prozesua

Programa honen ezarpena aitzakia bezala hartuta irakaskuntza prozesuari buruzko eztabaidak ugarituko dira ikastetxeetan. XXVIII. Topaketetako partaideen iritziz nolabaiteko "astindu" hori onuragarria izango da irakaskuntzarako. Eskola 2.0 programari dagokionez arrakasta edo porrota ezarpena egiteko moduan eta etorkizunera begira ematen zaion trataeran egon daiteke.

3.2 - FORMAZIOAREN INGURUKO EBALUAZIO ETA GOGOETA

3.2.1 - Formazioaren balorazioa

Eskola 2.0 programaren barruan aurtengo formazio proposamena bapatean heldu zen ikastetxeetara antolakuntza osoa eginda zegoenean eta ez dira makalak izan eskola batzuetan egin behar izan dituzten ahaleginak eskakizunak betetzeko.

XXVIII. Topaketetan balorazio hau egin da:

	1etik 5era doan eskalan baloratu			
Baloratutako aspektuak	Orain arteko formazioa	Irakasleen asebetetzea	Formazioaren antolakuntza	Partaideen aukeraketa
Batazbesteko balorazioa	2,4	2,2	2	2,2

3.2.2 - Formazioaren inguruko gogoeta

Begi bistan dago orain arte egindako formazioan hutsune handiak nabaritu direla eta ondorioz balorazioa eskasa izan dela. Topaketetako partaideek igjerri dituzten gabezi nabarmenenak hauexek izan dira:

- Ez da kontatu ikastetxeekin ezertarako, are gehiago, derrigorrez egin beharreko formazioaren agindua ikastetxeetara antolakuntza eginda zegoenean heldu zen.
- Formazioa ikastetxeetan bertan egiteko zailtasunak egon dira eta ordutegietan egin behar izan diren aldaketak kaltegarriak izan dira ikastetxearen antolakuntzarako.
- Metodologia aldaketari zuzendutako formazioa izango bada, ezin da alde pedagogikoa baztertu eta orain artekoa teknikoa izan da.
- Konpetentzia digitala beste konpetentziekin batera integratu behar da curriculumean.
- Antolakuntza honek eta programak eskatzen duen koordinazioak denbora eskatzen dute baina Administrazioak hori ez du kontuan hartzen.

3.3- ESKOLA 2.0 - TRESNERIA ETA KONEXIOA

Eskola 2.0 programak aurten 5. mailako geletan ondoko tresneriarekin kontatu du:

- Arbel digitala
- Ordenagailu pertsonalak
- WiFi konexioa

3.3.1 WiFi konexioa

Konexioaren kasuan leku batzuetan gurasoak WiFi ren kontra azaldu dira eta Hezkuntza Sailaren arduradunei eskatu diete kable bidezko konexioa

jartzea. Sarean elkarteak bere momentuan ere idatziz bidali zuen Hezkuntza Sailera kezka horren aipamena bi eskaerekin:

- WiFi konexioak osasun aldetik izan zezakeen ondorioa sakonki aztertzea.
- Azterketaren ondorioz erabakiak hartzea beti osasun aldeko aukera eginez.

3.3.2 Tresneria eta erabilpena

Orokorrean tresneria ikastetxeetara heldu da eta kasu bakan batzuk salbu, konexioa ere eginda dago.

Tresnen erabilpenari dagokionez egoera desberdinak daude, leku batzuetan denekin hasi dira, bestetan frogak egiten saiatu dira, batzuk arbela erabiltzen hasi dira baina ordenagailurik ez, eta bestetan ez da ezer erabiltzen hasi (gutxi gora behera %10ean).

Erabilpen desberdin honen arrazoiak asko eta desberdinak dira baina hona hemen nagusienak:

- Ordenagailuekin dagoeneko arazo batzuk azaldu dira eta konponketak egiteko Bartzelonara bidali behar dira.
- Arbelak deskalibratzen dira.
- Abiadura motela da eta blokeoak sarritan gertatzen dira.
- Eskola batzuetan konexioarekin ere arazoak daude, edo ez dago edota ez da gela guztietara heltzen.

4. PROPOSAMEN ETA ESKAERAK

XXVIII. Topaketetan bildutako partaideak hausnarketa zein proposamen edota eskaerak egiteko hiru taldetan banatuta egon ginen. Txosten honetan aipatzen diren kezkak, beharrak eta eskaerak talde guztietan azaldu ziren.

Proposamenekin hasi baino lehenago aipatu behar da Topaketen bezperan ikastetxeetara 2010-11 ikasturterako Lanpostu Zerrendak heldu zirela eta bertan murrizketa handiak azaltzen zirela. Eztabaida guztietan islatu zen haserrea eta ardura orain arte izan ditugun baliabide pertsonalak beharrezkoak direlako ikastetxeetan eta murrizketekin batera hainbat proiektu eta ikasleei ematen zaizkien laguntza bereziak kaltetuta edo desagertzeko zorian ikusten zirelako. Larritasun handia sortarazi zuen IKT arduradunarentzako denbora faltak.

XXVIII. Topaketetan, Eskola 2.0 gaiaren inguruko eztabaida egin eta gero, azaldutako beharrak kontuan hartuta eta aurrirakosten diren arazoei nolabaiteko irtenbidea emateko asmotan ondoko proposamenak egiten dira:

1. IKASTETXEEI ZUZENDUTA

- Hausnarketarako uneak ahalbidetu klaustroan, zikloetan etab.
- Erabakiak hartzeko tresnak adostu.
- Klaustrokideak Teknologia Berrien arloan interesatuta egoteko motibatu.
- Egiten diren esperientziak konpartitu lehenengo ikastetxean bertan eta gero beste ikastetxeekin.
- Talde-lana bultzatu
- Lagungarriak izan daitezkeen tresnak praktikan jarri: irakaslearen koaderno...
- Esperimentazioa eta berrikuntza bultzatu.

2. ADMINISTRAZIOARI ZUZENDUTA

- Ikastetxe guztietan Teknologia Berrien arloa koordinatzeko eta dinamizatzeko ezinbestekoa den arduraduna kontuan hartu Lanpostu Zerrendetan.
 - Arduradunen funtzioak zehaztu
 - Arduradunari formazio sakona eman.
 - Arlo teknikoaren protokolo argia eduki

- Formazioan ahalegin berezia egitea
 - Teknologia Berrien arduradunari formazio zabala batez ere pedagogiaren ikuspuntutik eta eskolan arloko dinamizatzailea izateko
 - Irakasle guztientzat formazio pedagogikoa formato desberdinetan: eskolan, Berritzeguneetan, on line...

- Zeregin guztiak egiteko denbora kontuan hartu.
 - Ikastetxeetan koordinazioa egiteko: mailak, zikloak, arduradunarekin
 - Klaustroetan hausnarketa egiteko eta erabakiak hartzeko
 - Baliabide pedagogikoak ezagutzeko, aztertzeko...
 - Teknologia Berriak ikastetxeko curriculum proiektuan integratzeko

- Kalitatezko materialak pedagogikoak eskaini ikastetxeei
 - Digitalizatu eta interaktiboak
 - Euskaraz

- Aspektu teknikoak zaindu.
 - WiFi konexioaren inguruan dagoen kezka aztertu, adituen iritziak jaso baloratu eta hartzen den erabakia azaldu ondoren erantzukizuna onartu.
 - Abiadura bizkortzeko neurriak hartu.
 - Kalitatezko Zerbitzu teknikoa dagoela ziurtatu.
 - Software librearen erabilpena bultzatu.
 - Zerbitzariak egokitu

- Ekonomi arloan programak eskatzen dituen etengabeko gastuei aurre egiteko partida berezia jarri ikastetxeetako aurrekontuetan.
 - Apurtu, galdu edota beste arrazoiengatik zerbitzu barik geratzen diren ordenagailuak berreskuratzeko.
 - Metodologia aldaketak suposatzen dituen gastuetarako: material pedagogikoak...

- Ikastetxeetako Autonomia errespetatu.

Autonomia aipatzen denean ez dugu adierazten arazo guztien konponketa Zuzendaritzaren gainean uztea eta gero betiko baliabideekin erantzuna exijitzea.

XXVIII. Topaketen Partaideek Autonomia, baliabideak eta parte hartzea bermatzen dituen kudeaketa eredu bezala ulertzen da.

Beraz, erantzukizuna hartu baino lehen iritzia emateko aukera izatea, norberaren egoera eta ibilbidearen araberako proposamenak egiteko uneak edukitzea, eta proposamenari egokitutako baliabideak eskuratzea espero dugu Autonomiaren izenean eta gero ebaluatuak izatea eta erantzukizunez jokatzeko.

5. -ERANSKINA - Prentsa-oharra

SAREAN Elkarreak maiatzaren 27an Donostiako Irakasle Eskolan XXVIII. TOPAKETAK burutu ditu. SAREANek EAEko Haur eta Lehen Hezkuntzako 178 ikastetxe publiko biltzen ditu eta beren helburu nagusiak, bai ikastetxeen artean baita Administrazioarekin ere harremanak eta elkarlana bultzatzea dira, nagusiki ikastetxeen eta sistemaren antolakuntza arloari dagokionean.

Jardunaldi hauetan zuzendaritza esparruan dabilzan kideek hartu dute parte batez ere, baina beste Topaketetan bezala, guraso, sindikatu, unibertsitateko irakasle eta Hezkuntza Administrazioiko kideen ekarpenak ere jaso ahal izan ditugu.

“Eskola digitalizaziorantz” izenburupean egin den hausnarketa XXVIII. Topaketetan

Jardunaldietako aztergai nagusia pil-pilean dagoen gaia izan da, hau da, Eskolaren digitalizazioa. Ikastetxeetan Teknologia berrien gaia ez da berria, aspalditik gabiltza horretan lanean eta eman diren urratsak garrantzitsuak izan dira. Hala ere, jakinaren gainean gaude teknologia berrien garapenak daraman abiadura eta ikastetxeetan daramaguna oso desberdinak direla. Horregatik ezinbestekoa ikusten dugu hausnarketa egitea, geure burua eta eskolako antolakuntza prestatzea eta erabakiak hartzea.

Aurten Eskola 2.0 ezarri da gure ikastetxeetan. XXVIII. Topaketetan tresna indartsu honek izan ditzakeen argiak eta itzalak aztertu dira, era arrakastatsuan erabiltzeko behar diren baldintzak azpimarratu eta irakasleek behar-beharrezkoa duten formazio sakona eskatu da.

Ikastetxeetan Eskola 2.0 programa arretaz hartu da baina burutzeko behar den azpiegitura eta arlo didaktikoaren plangintzan, zalantzak nagusi.

Gaiaren inguruan informazioa emateko eta zalantzak argitzeko Hezkuntza Sailaren bi ordezkari gerturatu dira Topaketetara. Carlos Crespo jaunak Eskola 2.0 programaren inguruan esan digu Hezkuntza Sailak programa honi garrantzi handia eman nahi diola eskolaren hobekuntzan paper handia jokatu dezakeelako, baina ezarri nahi dute ikastetxeetan antsietatean jausi barik. Programa errotuko dela uste dute eta datorren ikasturteko ekipamendua urria aldera helduko da eskoletara. Kalitatezko material didaktikoa lortzeko zailtasunak dituztela aipatu du.

Topaketen partaideek gure egonezina transmititu diogu Carlos Crespo jaunari atera berri dituzten Lanpostu Zerrendatan IKT arduradunarentzat ezartzen zen denbora kendu dutelako, figura hori inoiz baino beharrezkoagoa ikusten dugunean. Era berean Administrazioari egotzi zaio proiektu hau ikastetxeekin kontatu gabe ezarri izana.

Irakasleen formakuntza: ardura eta beharra.

Teknologia berriekin eta zehazki Eskola 2.0 proposamenarekin asko hitz egiten da irakaslearen *roll*-aren aldakuntzaz, “ezagutzaren gestorea” izan behar da gaur egungo irakaslearen papera; baina hori ez da beste barik lortzen baizik eta formakuntza prozesu baten ondoren bi agente nagusiak norabide bereberean lan eginez: irakasleek ilusioa eta denbora ematen eta Administrazioak bitartekoak jartzen. Orain arte egindakoa ez da nahikoa, eta Topaketetako partaideen iritziz asko hobetu behar da arlo honetan.

Eskolaren kudeaketa ere digitalizazioaren bidetik

Hezkuntza eremuko elkarrekin antzinatek aldarrikatu dugu ikastetxeen kudeaketarako dagoen behar nagusi bat, aplikazio informatiko ona, zabalera eta berdina ikastetxe guztietarako. Aplikazio honek ikastetxeko kudeaketa erreteaz gain Administrazioarekiko harremanak hobetu beharko lituzke.

Idoia Chorro andereak ikastetxeen kudeaketarako jarriko dituzten aplikazioei buruz informazio labur bat eman digu; azaldu digunaren arabera aplikazio desberdinak gehituko omen dira pixkanaka eta 2011-2012 ikasturterako eskola guztietan prozesua osatuta edukitzeko asmoa dute.

Ikastetxeetatik eskaera egin nahi dugu, hau da, iradokizunak egiteko edota zalantzak argitzeko erreferentziako helbide eta pertsonak edukitzea.

Hitzaldia

Jardunaldien hasieran Donostiako Magisteritza Eskolako *Joxemi Correa* irakasleak “*Teknologia Berriak Eskolan: argiak eta itzalak*” hitzaldiarekin ikastetxe batzuekin batera egindako ikerketaren berri eman digu. Eskola berritzaileek IKT aurrean duten erantzuna aztertu zuten eta lortutako emaitzen arabera antolaketa eta kudeaketa arloetan gertatzen dira aldaketa nagusiak. Bestalde, Zuzendaritza Taldeen inplikazioak eragin handia duela proiektuaren emaitzetan aipatu du eta IKTaren inguruan irakasleek izan beharreko gaitasunak eta ikastetxeetan egiten diren praktika on batzuen adibideak azaldu ditu.

Esperientziak

XXVIII. Topaketetan bi begirada zabaldu nahi izan ditugu Teknologia Berrien eremura. Goizean zerura begiratu ondoren arratsaldean lurra zapaldu dugu hiru eskola publiko desberdinetan egiten ari diren esperientzien bidez: blogaren, arbel digitalaren eta multimediararen erabilpen pedagogikoa. Errealitatean egin daitekeena erakutsi digute Amara Berri, Lekeitio eta Arantzabela ikastetxeetako ordezkariak. Jardunaldien partaideek biziki eskertu diegu lan zoragarri hori gurekin konpartitu izana.

Aro digitala, era egokian

Lehen aipatu bezala, ikastetxeetan orain dela urte asko abiatu ginen Teknologia Berrien ibai zabaletatik, hasieran beldurrez eta era xumean eta gero bakoitzaren ahalmenaren arabera ur nagusiagoetan murgiltzen. Gure ustetan proiektuek, eskolako lan guztia bezala, ikasleen ezagupen maila hobetzea dute helburu eta hori holan izango bada,

oinarrizko azpiegiturak bete ondoren, arrazoi pedagogikoetan errotu behar dira; uholdeak ez ditugu gustoko, ur lasaietan heldu nahi baitugu gure "itsasora".

Horregatik Hezkuntza Sailari eskatzen diogu proiektuak ezarri baino lehen ikastetxeekin kontatzea, benetako beharrak kontuan hartzea eta erabaki ondoren behar diren baliabideak jartzea.

SAREAN Elkartek, ohi duen bezala eta beti Eskola Publikoaren hobekuntza sendotze aldera, ikastetxeetatik jasotako iradokizunak Hezkuntza Sailaren arduradunei helarazteko konpromisua hartzen du.

SAREAN Elkartea

2010eko

maiatza

NOTA DE PRENSA

La asociación SAREAN ha celebrado sus 28 TOPAKETAK el día 27 de mayo en la Escuela de Magisterio de Donostia. SAREAN, que reúne a 178 escuelas públicas de Educación Infantil y Primaria de la C.A.V, tiene como objetivos prioritarios impulsar las relaciones y el trabajo colaborativo tanto entre los centros de su red como entre éstos y la Administración, fundamentalmente en los aspectos que inciden o están relacionados con la gestión y organización de los centros.

La mayoría de participantes en estas Jornadas han sido personas que ejercen funciones directivas en las escuelas, aunque al igual que en anteriores encuentros, han tomado parte también miembros de asociaciones de padres y madres, sindicatos, profesorado de la UPV y representantes de la Administración Educativa.

“La Escuela hacia la digitalización” tema de reflexión en las Topaketak

El tema central de debate de las jornadas ha sido la digitalización de los Centros Escolares. Las Nuevas Tecnologías no son un tema nuevo en los Centros Escolares puesto que este trabajo se lleva haciendo desde hace tiempo, pero somos conscientes de que la velocidad del desarrollo de las Nuevas Tecnologías y la de la escuela son muy diferentes. Por esa razón vemos imprescindible reflexionar, prepararnos tanto a nivel individual como respecto a la organización de los Centros y por último tomar decisiones.

Este curso El Departamento de Educación ha implantado en nuestros centros el programa “Eskola2.0”. En las XXVIII Topaketak se han analizado los diferentes aspectos de esta potente herramienta, se han remarcado las condiciones que vemos necesarias para que el programa tenga los resultados que se anuncian y se ha solicitado insistentemente la formación que necesita el profesorado.

En los centros el Plan se ha acogido con interés pero en cuanto a la infraestructura necesaria para que salga adelante con éxito y a la elaboración de recursos didácticos, hay muchas dudas.

En estas Topaketak han participado dos representantes de la Administración para informar sobre el tema y responder a algunas de las dudas. Es Sr. Carlos Crespo en su intervención nos ha asegurado que Eskola 2.0 es un tema prioritario para el Departamento de Educación por la importancia que puede tener en la transformación de la Escuela pero que quieren que su implantación se realice sin ansiedad. El objetivo de este programa es que llegue “para quedarse” y se proponen continuar el próximo curso enviando los equipos hacia el mes de octubre. Los mayores problemas los están teniendo con la obtención de materiales didácticos de calidad.

Por parte de los participantes en las XXVIII. Topaketak se le ha manifestado al señor Carlos Crespo el malestar que hay en los centros debido a que desaparece de la RPT el tiempo que se le adjudicaba al encargado de las Nuevas Tecnologías en un momento que se ve más necesario que nunca. Así mismo se le ha transmitido la queja respecto a

la forma en que la Administración ha decidido poner en marcha este proyecto sin contar con los Centros.

Formación del profesorado: deber y necesidad.

Con respecto a las Nuevas Tecnologías y más concretamente en lo que se refiere a Eskola 2.0 se habla mucho de cambio del *roll* del profesor/a. El papel del profesor es el de “gestor del conocimiento” pero eso no surge de la nada sino que como resultado de un proceso de formación en el que trabajan a la vez el profesorado poniendo su tiempo e ilusión y la Administración con los medios adecuados.

Lo hecho hasta ahora en este campo no es suficiente y en opinión de los participantes de las Topaketak hay mucho que mejorar.

La gestión de los Centros también por el camino de la digitalización.

Las asociaciones del entorno Educativo venimos reivindicando desde hace mucho una aplicación buena, amplia y común para llevar a cabo la gestión de los Centros Educativos. Esta herramienta además de facilitar la gestión debería también mejorar la relación entre la Administración y los Centros.

La representante de la Administración Idoia Chorro nos ha dado una información resumida sobre la idea del Departamento en este tema que están abordando por partes y que esperan que para el curso 2011-2012 esté al completo en todos los Centros Escolares.

Por parte de los Centros se hace la petición de tener unas referencias claras tanto de direcciones como personas para poder contactar y aclarar dudas.

Conferencia

Al inicio de las XXVIII Topaketak El profesor de la Escuela de Magisterio de Donostia *Joxemi Correa* bajo el título de “*Las Nuevas tecnologías: luces y sombras*” ha hecho la presentación del trabajo de investigación realizado con la colaboración de varias escuelas. Los mayores cambios que se observan en las Escuelas Innovadoras ante las Nuevas Tecnologías son en los campos de la organización y gestión. Así mismo, se observa la importancia del liderazgo de los Equipos Directivos en el desarrollo de los proyectos. Para terminar, ha descrito las competencias del profesor y ha mostrado algunas buenas prácticas que se realizan en los centros.

Experiencias

En estas Topaketak hemos querido extender dos miradas sobre el inmenso campo de las Nuevas Tecnologías. Después de mirar al cielo por la mañana, a la tarde hemos pisado tierra con las experiencias sobre la utilización pedagógica del blog, de la pizarra digital y de las multimedia que nos han presentado tres Escuelas Públicas, Amara Berri, Lekeitio y Arantzabela. A través del conocimiento de estas experiencias hemos disfrutado de lo que en realidad se hace en los Centros. Los participantes de las

Topaketak han agradecido a los compañeros que han querido compartir con nosotros estos estupendos trabajos.

La Era digital de forma adecuada

Como se ha señalado anteriormente, en los Centros Escolares hace mucho que nos sumergimos en las aguas inmensas de las Nuevas Tecnologías, al principio con miedo, y luego según las posibilidades de cada uno, cada vez en ríos más profundos. En nuestra opinión, los proyectos, como todo el trabajo de la escuela tiene como fin mejorar el nivel de competencia del alumnado y para que esto sea así dichos proyectos una vez conseguida la infraestructura adecuada, deben de asentarse en razones pedagógicas. No nos gustan los desbordamientos, queremos alcanzar nuestro “puerto” navegando por aguas tranquilas.

Por esta razón le pedimos al Departamento de Educación que antes de imponer un proyecto, cuente con los Centros, analice las necesidades y una vez decidido dedique los recursos necesarios.

La asociación SAREAN, como acostumbra, y siempre con la mira en la mejora de la Escuela Pública, coge el compromiso de poner en conocimiento de los responsables del Departamento de Educación las sugerencias que reciba de los Centros.

Asociación SAREAN
mayo de 2010